

FITXA: 220 -ARABA- Arabako lurralde historikoko kuadriletan eta udaletan 2026ko ekitaldian egin beharreko turismo inbertsioei aurre egiteko laguntzen deialdia.

| | |
|---|---|
| Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek. Arabako Lurralde Historikoko udalek. | |
| Deialdia: ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala | Deialdiaren data: 2026/04/01 |
| Sarbide-esteka: https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayuda-turismo-inversiones-en-cuadrillas-y-ayuntamientos | |
| Erreferentziazko araudia: 172/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/039/2026_039_00893_E.pdf | |
| Eragin eremuak: Turismoa | |
| Zenbatekoa: 377.264,00 € | |
| Aurkezteko lehen eguna: 2026/04/02 | Aurkezteko azken eguna: 2026/04/24 |
| Aurrerakina: Ez da zehaztu. | Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu |
| Gehieneko zenbatekoa: 48.000,00 eurokoa izango da kuadrillentzat, 28.000,00 eurokoa 200.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udal onuradunentzat, eta 20.000,00 eurokoa gainerako udalpentzat. | Gutxieneko zenbatekoa: 1.500,00 euro, oro har, eta 2.000,00 euro kuadrillen eta 20.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udal onuradunen kasuan. |
| Tramitazioa: Norgehiagoka. | |

Laburpena

Arabako lurralde historikoko kuadriletan eta udaletan 2026ko ekitaldian egin beharreko turismo inbertsioei aurre egiteko laguntzen deialdia.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

A) Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak.

- B) Erakunde eskatzailearen turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko beharrezkoak diren aktibo finkoetako inbertsioak.
- C) Baliabide turistikoaren edota ondare historikoaren berreraikitze birtuala.
- D) Efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketak.
- E) Donejakue Bideko eta Inaziotar Bideko erromesei arreta emateko azpiegiturak hobetzeko lanak.
- F) Bisitariak hartzeko eraikinak edo informazio turistikoa emateko azpiegiturak (turismo bulegoak, turismo informazioguneak...) konpontzea, handitzea eta mantentzea edo eraberritzea.
- G) Nomada digitalen proiekturako guneak gaitzeko gastuak (Bulegoa).

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe diruz lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak diruz lagundu ahal izango dira.

Gastuetarako aldi hautagarria

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2025ko abenduaren 15etik 2026ko abenduaren 1era bitarteko aldiaren egin beharko dituzte inbertsioak.